

## 8. GAIA:

### ERIZAINZAKO PRACTICUMAREN TUTORETZA PROZESUA

Irakasle taldea  
ELORDI GÜENAGA, UDANE  
HUITZI EGILEOR, JOSEBA XABIER  
IZAGIRRE OTAEGI, ANDREA  
UGARTEMENDIA YEROBI, MAIDER  
URANGA ITURRIOZ, MARÍA JOSÉ  
ZUBELDIA ETXEBERRIA, JOSUNE

Tutoretza prozesua ebaluazio sistemaren ardatza da, helburua delako ebaluazioa formatiboa izatea. Hori dela eta, ezinbestekoa da komunikazio egokia egotea practicumeko agente guztien artean praktika ziklo bakoitzaren une jakin batzuetan.

Tutoretza prozesua definitzeko, metodologia parte hartzaile bat erabili zen, erizain instruktoreekin, irakasle tutoreekin eta ikasleekin eginiko 2 lan saiotan, Hezkuntzan aditua eta Pedagogian doktorea den pertsona baten zuzendaritzapean: 48 pertsonak parte hartu zuten guztira, eta horien % 69 erizain instruktoreak ziren (Lehen Mailako Arretako zentroetako 12 erizain eta hainbat ospitale unitate eta zerbitzutako 21 erizain), % 17 irakasle tutoreak eta % 14 erizaintza ikasleak (3. mailakoak). Bost taldetan banatu ziren, horietako bakoitza 6-7 erizain instruktore, 1-2 ikasle eta 1-2 irakaslerekin. 2 lan saioetan bildutako proposamenekin, erabaki hauek hartu ziren (1):


- Praktiken ziklo bakoitzean, irakasle tutoreek gutxienez hiru tutoretza egingo dituzte ikasleekin: lehenengoa, Fakultatean praktiken zikloa hasi baino lehen, ikaslearen eta irakaslearen artean; bigarrena, praktikak egiten diren lekuan, zikloaren erdian, ikaslearen, erizain instruktorearen eta irakaslearen artean; hirugarren tutoretza, zikloa amaitzean, praktiken lekuan, ikaslearen, erizain instruktorearen eta irakasle tutorearen artean. Ikasle batek laguntza handiagoa behar badu, tutoretza gehiago egingo dira.
- Zentro/Unitate/Zerbitzu bakoitzaren aurkezpen dokumentu bat egiten da (1. taula), ikasleek, praktikak hasi aurretik, horiek egingo diren lekuaren ezaugarriak ezagutu ditzaten.
- Ikasleen harrera protokoloa zehazten da, erizain instruktoreak praktiken lehenengo egunean erabili beharrekoa, eta tutoretza prozesuan txertatzen da, ikasle guztiek harrera bera izan dezaten. Hainbat motatako informazioa jasotzen du: pertsonen aurkezpena, egitura fisikoarena, funtzionamenduarena eta praktiken antolakuntzarena.

**Taula 1. Praktika lekuaren aurkezpen orria.**

<b>Practicuma egiteko zentro/unitate/zerbitzuaren aurkezpen orria</b>
Zentroa/unitatea/zerbitzua:
Enpresa:
Helbidea:
Telefonoa:
Erizain instruktorearen izena:
Erizain instruktorearekin harremanetan jartzeko modua (email, telefonoa...):
<i>Zentro/unitate/zerbitzuaren ezaugarriak</i> (ikasleentzako informazio interesgarria, praktikak hasi aurretik)
Egitura fisikoa (espazioak, gela kopurua, ohe kopurua gela bakoitzeko...)
Erabiltzaileen ezaugarriak (populazio orokorra, ohiko osasun arazoak...)
Funtzionamendua (taldeak / pertsonak)
Erizaintzako funtzioak (antolakuntza...)
Praktiken antolakuntza zikloan (txandak arloen arabera...)
Kontuan izan beharreko beste gai batzuk (teknika bereziak, uniforme berezia, mugak...)

1. irudian ikus daiteke tutoretzen eskema: agente bakoitzaren zeregin nagusiak (Fakultatea/Atala, irakasle tutoreak, erizain instruktoreak, ikasleak) practicumari lotutako denbora tartean (practicumaren aurretik, practicuma egin bitartean eta hura amaitzean).

Tutoretza prozesua bat dator UPV/EHUren Kanpoko Praktiken Araudiarekin (2), zeinaren arabera Fakultatea/Atalak erabakiko duen nola lagundu eta jarraipena egin ikasleei. Halaber, araudiak dio komunikazio uneak zehaztuko direla, unibertsitateko irakasle tutoreak eta erakunde laguntzaileko instruktoreak modu koordinatuan arituko direla, unibertsitateko tutoreak gutxienez hiru tutoretza saio egingo dituela ikaslearekin (lehenengoa, praktikak hasi aurretik; bigarrena, praktiken zikloaren erdian; eta azkena, praktika amaitzear daudenean) eta irakasle tutoreak eta instruktoreak informazioa eta orientazioa eman beharko dizkietela ikasleei, gaitasunen eskuratze mailari buruz.



1. irudia. Tutoretza prozesuaren eskema.

Tutoretza prozesuan, zehazten da agente bakoitzaren jarduna practicumaren tenporalizazioan (3). Oro har, komeni da bereiztea practicumarenaldiak eta jarduera nagusiak:

Practicuma hasi aurretik:

- Fakultatea/Atalak informazioa bidaltzen du eta ikasleak, irakasle tutoreak eta erizain instruktoreak trebatzen ditu.
- Irakasle tutoreak lehenengo tutoretza saioa egiten du ikaslearekin eta harremanetan jartzen da erizain instruktorearekin.

Practicumean zehar:

- Erizain instruktoreak harrera egiten dio ikasleari praktiken lehenengo egunean.

- Irakasle tutoreak eta erizain instruktoreak gutxienez bi tutoretza gehiago egiten dituzte batera ikaslearekin (bata zikloaren erdian eta bestea amaitzean). Tutoretzen aurretik, agente bakoitzak dagokion lana egiten du. Ikasleek gogoetazko autoebaluazioak betetzen dituzte; irakasle tutoreak eta erizain instruktoreak, ebaluazio proposamena. Tutoretzetan adosten dira ebaluazioa eta dagokion kalifikazioa.

Practicuma amaitzean:

- Irakasle tutoreek dokumentazioaren erregistroa amaitzen dute.
- Agente guztiek (ikasleak, irakasle tutoreak eta erizain instruktoreak) gogobetetze inkesta betetzen dute.

Lerro hauen aurretik aurkeztutako 1. irudiko tutoretza prozesuaren eskeman ikus daitezke agente guztiek practicumaren tenporalizazioan egin beharreko jarduerak, zenbaki batez parentesien artean adierazita. Zenbaki horiekin lotutako zereginak xehetasunez ikus daitezke 2. taulan (3).

2. taula: Tutoretza prozesuaren xehetasunak

Fakultatea	Irakasle tutorea	Instruktorea	Ikaslea
------------	------------------	--------------	---------

(1) Erizain instruktoreei dokumentazioa bidaltzen die, esleitutako ikasleei eta irakasle tutoreei buruzkoa. Erizain instruktoreak trebatzen ditu tutoretza prozesuaren eta ebaluazioaren inguruan.	
(2) Irakasle tutoreari informazioa ematen dio esleitutako ikasleari buruz. Irakasle tutoreak trebatzen ditu tutoretza prozesuaren eta ebaluazioaren inguruan.	
<b>(3) Practicumaren arduradunen eta ikasle guztien arteko bilera nagusia, praktikak hasi aurretik. Nahitaezkoa da bilerara joatea.</b>	
<b>Aztertu beharreko gaiak:</b>	
Egutegia, kronograma.	
Praktika klinikoaren araudia (ordutegia, puntualtasuna, hutsegiteak berreskuratzea...).	
Erizain instruktoreak eta irakasle tutoreak.	
Helburua: beren ikaskuntzaz arduratuko diren eta gogoeta egingo duten erizainak trebatzea. Erizain instruktoreek eta irakasle tutoreek orientazioa eskaintzen dute.	
Ikaskuntza emaitzak eta prestakuntza ebaluazioa: tutoretza prozesua, ebaluazio orria, gogoetazko autoebaluazio orria eta prozeduren orria.	
Harrera zentro-unitatean.	
Istripuen protokoloa.	
Aldagelak eta arropa garbiketa. Neurri bereziak (Covid...).	
Konfidentzialtasun eta sexu delituen dokumentuak.	
Erantzukizun korporatiboa (UPV/EHUko ikasleak).	
Practicumaren gogobetetze inkesta praktikak amaitzean. Inkesta betetzearen garrantzia azaltzen du, hobekuntzak egiteko.	
Aurreko ikasturteko inkesten emaitzak aurkezten ditu eta inkesta horietan oinarrituta eginiko aldaketak azaltzen ditu, (aldaketarik egonez gero).	

<b>(4) 1. banakako tutoretza prestatzen du, practicum hasi aurretik fakultatean</b>	
<b>Koordinazio elkarrizketa (presentziala, telefonikoa...) tutorearen eta instruktorearen artean, gai hauek aztertzeko:</b>	
Aurkezpen pertsonala	
Ikasleei buruzko informazioa (ikasle kopurua, ibilbidea, txandak...).	
Erizain instruktorearen eta irakasle tutorearen arteko kontaktu mota.	
Zentro-unitatearen Aurkezpen Orria aipatzen du.	
Irakasle tutoreak Orri hori ez badu edo komeni bada aldaketaren bat egitea, dokumentua email bidez bidaltzeko eskatzen dio, practicumaren arduradunari birbidaltzeko.	
Tutoretza prozesua eta practicumaren ebaluazioa gogoratzen du. Erizain instruktoreak prestakuntzarik jaso ez badu, tutoretza prozesuaren faseen eta ebaluazioaren berri ematen du.	
Dagokion ebaluazio orria bidaltzen dio.	
Harrera ordua eta harrera nork egingo duen aipatzen ditu.	
Ikasleari deitzen dio, banakako tutoretza egiteko.	

<b>(5) 1. banakako tutoretza ikaslearekin, fakultatean: practicum hasi aurreko astean:</b>	
Aurkezpen pertsonala	
Zentro/unitatearen Aurkezpen Orria eman eta azaltzen du, praktiken plangintza aipatuz (txandak, txandakatzearen aurreikuspena arloen arabera, halakorik balego...).	
Argibideak ematen ditu erizain instruktorearen eta unibertsitateko irakasle tutorearen eginkizunei buruz.	
Kontaktu moduaren berri ematen du.	
Nabarmentzen du zer garrantzi duen ikaslea bere ikaskuntzaz arduratzea. Erizain instruktorea eta unibertsitateko tutorea orientatzaileak dira (beren ikaskuntzaz arduratuko diren eta gogoeta egingo duten erizainak trebatzea da helburua).	

Gogoratzen ditu ikaskuntza emaitzak, emaitza horien ebaluazioa eta tutoretzen prozesua (datak, lekua...). Azalpenak ematen ditu gogoetazko autoebaluazio orriari (bidalketa data zehaztuz) eta prozeduren orriari buruz (ikasleak prozedura egiaztatzeke eskatuko dio erizain instruktoreari, prozedura egoki burutzen duela uste badu).	
Nabarmetzen du zer garrantzia duten alderdi formalak betetzeak (puntualtasuna, uniformea...) eta, ezustekorik edo hutsegiterik izanez gero, horren berri ematea erizain instruktoreari (zentro-unitatea) eta unibertsitateko tutoreari.	
Egiaztatu egiten du ba ote dakien nola dagoen antolatuta practicuma; ez badaki, egela plataformara edo webera bideratzen du.	
Kontuan hartu edo sinatu behar diren dokumentuak azaltzen ditu (konfidentzialtasun konpromisoa...).	
Harrera ordua eta harrera nork egingo duen aipatzen du.	
Ikaslearen itxaropenak balioesten ditu.	
Oharren atala betetzen du (1. tutoretza) informatika aplikazioan.	
Beharrezkoa izanez gero, telefonoz adierazten dio erizain instruktoreari ikasleak zer hobetu behar den, eta jarraipena planifikatzen du.	

<b>(6) Harrera prestatzen du:</b>	
Ikasleari buruzko dokumentazioa aztertzen du.	
Ikaslearen txandak zentro-unitatean planifikatzen ditu, kontuan hartuz taldea eta unibertsitateko tutoreak aipatutako hobekuntzak (halakorik balego).	
<b>(7) Ikaslearen harrera zentro-unitatean, aurretik zehaztutako leku eta ordu batean:</b>	
<b>Erizain instruktoreak konfiantza giro bat sortu behar du, eta laguntzeko eta hurbil egoteko prestasuna erakutsi behar du, ikasleak bere gain har dezan ikaskuntzaren gaineko erantzukizuna.</b>	
<b>Aurkezpen pertsonala</b> (nortzuk gara?):	
Erizain instruktoreak bere burua aurkezten du: izen-abizenak, kargua, txandak.	
Ikasleak bere burua aurkezten du: izen-abizenak, ikasturtea, alde zehariko esperientziak.	
Ikasleak entregatzen du egela plataformatik inprimatu duen sinaduren orria.	
Ikaslearen eta instruktorearen arteko komunikazio modua, bi norabideetan, zehazten da (mezu elektronikoak, telefonoak, bilerak...).	
Gorabeherak jakinarazteko sistema zehazten da (hutsegiteak, atzerapenak...).	
<b>Egitura fisikoaren in situ aurkezpena</b> (non gaude?): aretoak, materialak.....	
<b>Egitura funtzionala azaltzen du</b> (nola funtzionatzen dugu?):	
Taldeak / pertsonak	
Erizainaren eginkizunak	
<b>Praktikak zikloan zehar nola dauden antolatuta azaltzen du</b> (txandak arloen arabera, arlorik balego.....).	
<b>Kontuan izan beharreko beste gai batzuk</b> (teknika bereziak, mugak...)	
<b>Nabarmetzen du zer garrantzi duen ikaslea bere ikaskuntzaz arduratzeak:</b>	
Azpimarratzen du zer garrantzi duen ikaskuntza emaitzak argi edukitzeak.	
Nabarmetzen du ikaslearen erantzukizuna, erabakitzeke noiz egiaztatu behar den prozedura bat (egoki eta laguntzarik gabe burutzen duenean).	
Gogoratzen du araudia betetzearen garrantzia.	
Azpimarratzen du zer garrantzi duen galdetzeak eta gogoeta egiteak ikasteko.	
Galdetzen dio ea zalantzarik baduen tutoretza prozesuari eta ebaluazio sistemari buruz (autobebaluazioekin), edo beste gairen bati buruz.	
<b>Ikasleari galdetzen dio espektatibei buruz</b> , eta balioetsi egiten ditu, behar izanez gero moldatuz.	
<b>Taldea aurkezten du</b> eta argibideak ematen ditu erizaintza taldeak irakaskuntzan duen parte hartzeari buruz.	

...2. taularen jarraipena: *Practicumaren tutoretza prozesuaren xehetasunak*

Fakultatea	Irakasle tutorea	Instruktoorea	Ikaslea
------------	------------------	---------------	---------

<b>(8) Gogoetazko autoebaluazio orria bidaltzen die erizain instruktoeari eta irakasle tutoreari.</b>	
<b>(9) 2. tutoretza prestatzen du:</b>	
Tutoretzaren data adosten du erizain instruktoareekin.	
Erizain instruktoeari galdetzen dio ikaslearen jarrerari buruz.	
Tutoretzaren dataren berri ematen dio ikasleari.	
Ikaslearen gogoetazko autoebaluazio orria ebaluatzen du.	
<b>(10) 2. tutoretzarako autoebaluazioa prestatzen du:</b>	
Gogoetazko autoebaluazio orriaren aurkezpena prestatzen du.	
Prozeduren orriaren aurkezpena prestatzen du (prozedura egiaztatuak eta egiaztatzeke daudenak).	
<b>(11) Ebaluazioa prestatzen du:</b>	
Ikaskuntza emaitzen ebaluazioa prestatzen du, ebaluazio orriaren arabera, beharrezko informazioa jaso ondoren (taldearen balorazioa...).	
Ikaslearen gogoetazko autoebaluazio orria ebaluatzen du.	
<b>(12) 2. tutoretza, practicumaren erdian, zentro-unitatean. Baterako tutoretza, ikaslea-instruktoea-tutorea, leku egoki batean (ikasle bakoitzarekin banan-banan)</b>	
(Garrantzitsua da ikaslea bere ikaskuntzaz arduratzea, erizain instruktoearen eta unibertsitateko tutorearen zeregina izanik laguntzea eta orientatzea).	
Ikasleak bere gogoetazko autoebaluazio orria aurkezten du.	
Ikasleak bere prozeduren orria, egiaztatutako prozedurekin (halakorik balego) aurkezten du, eta egiaztatzeke dauden prozedurak egiaztatzea proposatzen du.	
Erizain instruktoeak ebaluazioa aurkezten du, ebaluazio orriaren arabera, eta egiaztatutako prozedurak berresten ditu (halakorik balego).	
2. tutoretzaren adostutako kalifikazioa, "Ebaluazioa eta kalifikazioa" taularen arabera. Adostasunik ez badago, irakasgaiaren ardura duen irakasleak erabakiko du kalifikazioa.	
Hobetzeko arloak zehaztea eta jarraipenaren planifikazioa egitea, beharrezkoa izanez gero.	
Praktiken planifikazioa egiaztatzea (txandak arloen arabera...).	
Irakasle tutoreak amaierako ebaluazioaren berri ematen du: gogoetazko autoebaluazio orria entregatzeko datak eta prozeduren orritik egiaztatzeke dauden prozedurak.	
Ebaluazio orria betetzen du:	
"Ebaluazioa eta kalifikazioa" taularen 2. tutoretzaren atala.	
Prozeduren orria: A mailaz egiaztatutako prozedurarik egonez gero.	
Tutoretzari buruzko informazioa erregistratzen du informatika aplikazioan.	



...2. taularen jarraipena: *Practicumaren tutoretza prozesuaren xehetasunak*

<b>(13) Gogoetazko autoebaluazio orria bidaltzen die erizain instruktoreari eta irakasle tutoreari.</b>	
<b>(14) Azken tutoretza prestatzen du:</b>	
Tutoretzaren data adosten du erizain instruktorearekin.	
Erizain instruktoreari galdetzen dio ikasleak eginiko urratsei buruz.	
Tutoretzaren dataren berri ematen dio ikasleari.	
Gogoetazko autoebaluazio orria ebaluatzen du.	
<b>(15) 3. tutoretzarako autoebaluazioa prestatzen du:</b>	
Gogoetazko autoebaluazio orriaren aurkezpena prestatzen du.	
Prozeduren orriaren aurkezpena prestatzen du (prozedura egiaztatuak).	
<b>(16) Ebaluazioa prestatzen du:</b>	
Ikaskuntza emaitzen ebaluazioa prestatzen du, ebaluazio orriaren arabera, beharrezko informazioa jaso ondoren (taldearen balorazioa...).	
Gogoetazko autoebaluazio orria ebaluatzen du.	
<b>(17) Azken tutoretza, practicumaren azken astean, zentro-unitatean Baterako tutoretza, ikaslea-instruktorea-tutorea, leku egoki batean (ikasle bakoitzarekin banan-banan)</b>	
Ikasleak bere gogoetazko autoebaluazio orria aurkezten du.	
Ikasleak bere prozeduren orria (prozedura egiaztatuak) aurkezten du.	
Erizain instruktoreak ebaluazioa aurkezten du, ebaluazio orriaren arabera, eta egiaztatutako prozedurak berresten ditu.	
Azken tutoretzaren adostutako kalifikazioa, "Ebaluazioa eta kalifikazioa" taularen arabera. Adostasunik ez badago, unibertsitateko irakasle tutoreak erabakiko du kalifikazioa, ebidentzietan oinarrituta.	
Ikaslearen indarguneak identifikatzea eta, beharrezkoa izanez gero, hurrengo praktikei begira hobetzeko arloak proposatzea.	
Ebaluazio orria betetzen du:	
"Ebaluazioa eta kalifikazioa" taularen azken tutoretzaren atala.	
Prozeduren orria	
Ikasleak, instruktoreak eta tutoreak ebaluazio orria sinatzea.	
Ikasleari eta erizain instruktoreari esaten die mezu bat jasoko dutela aplikaziotik, gogobetetze inkesta betetzeko eskatuz, eta garrantzitsua dela betetzea, hobekuntzak egiteko.	
Agurra	
<b>(18) Tutoretzari buruzko informazioa erregistratzen du informatika aplikazioan, eta dokumentazioa entregatzen du, dagokionaren arabera. Gogobetetze inkesta betetzen du.</b>	
<b>(19) Gogobetetze inkesta betetzen du.</b>	
<b>(20) Gogobetetze inkesta betetzen du</b>	

## BIBLIOGRAFIA

1. Uranga Iturrioz MJ. Erizaintzako prestakuntzaren eboluzio historikoa Gipuzkoan. Praktiketako gaitasunen diseinua egungo beharrei egokitzeko. [tesia Interneten]. Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea; 2013 [kontsulta,2021/5/13]. Hemen eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/13404>
2. Erabakia, 2019ko uztailaren 24koa, Gradu eta Graduondoko Ikasketen arloko errektoreordearena eta Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko errektoreordearena, UPV/EHUko ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudia onartzen duena, Gobernu Kontseiluak onartua 2019ko uztailaren 12an. EHAA. [internet], 147 zk. (2019ko abuztuaren 6a) [kontsulta,2021/5/13]. Hemen eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/bopv2/datos/2019/08/1903746a.pdf>
3. Uranga Iturriotz MJ, Gil Molina P, Alberdi Erice M, Barandiaran Lasa M, Eizmendi Garate I, Elordi Güenaga U, et al. Diseño del Practicum del Grado en Enfermería. Practicumaren diseinua Erizaintzako Graduan. [Internet]. 2022. [kontsulta, 2022/04/01]. Eskuragarri: <http://hdl.handle.net/10810/56179>